



Aretxabaletako
Udala

ARETXABALETAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA 2009-2012

MURGIBE sI

2008ko Abendua



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

1. Eremu teoriko eta lege eremua	3
2. Metodologia	6
3. Aukeratutako arloen justifikazioa eta tokiko errealitarera egokitzea	8
4. Plana ezartzeko neurriak	10
5. Arloak, helburuak, ekintzak	13
Udala	20
Euskera, Kultura eta kirola	23
Hezkuntza	27
Lana	31
Gizarteratzea eta Osasuna	34
Hirigintza eta ingurumena	39
6. Kronograma	42

1. EREMU TEORIKOA ETA LEGE EREMUA.

Azken urteotan, lege eta arau juridiko ugari sortu da nazioarte, Europa, estatu eta toki mailan, eta horien helburua Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Eskubidea beren beregi onartzea da. Hortaz, Plan honek erakunde eta lege babes handia du.

Ondoren, genero-politiken gaineko zenbait lege eta teoria nabarmenduko dira:

- Apirilaren 2ko **7/1985 Legea**, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua).
- Otsailaren 18ko **4/2005 Legea**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako **IV. Plana**.
- Martxoaren 22ko **4/2007 Lege Organikoa**, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa.
- Toki Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **Europako Karta**.

[Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena \(03/12/21ean eguneratua\)](#)

Legearen 28. artikuluan esaten denez, udalerriek beste herri administrazio batzuen jarduera osagarriak egin ditzakete eta, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumenaren babesari buruzkoak. Testuinguru horretan, argia da tokiko administrazioaren protagonismoa, eta esku hartzeko tokia uzten da araudian, udalerriei jarduerak bultzatzeko modua emateko, baita herritarrek generoaren arloan dituzten beharrak eta igurikapenak betetzen laguntzeko beharrezko gizarte zerbitzuen eskaintza ere. Horrek ez dakar berekin, inola ere, beste herri administrazio batzuen eskumenak galtzea edo oztopatzea. ¹

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea](#)

Lege honen eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan administrazio maila bakoitzari dagozkion funtzioak zehazten dira argi eta garbi, betiere Autonomia Estatutuko 10.39. artikularen, Lurralde Historikoen Legearen 6 eta 7 c) 2 artikuluen eta estatutuko arauen (9.2. art.) eta EBkoen (Europako Batasunaren Itunaren 3.02. art.) ondoriozko eskumenak oinarri hartuta. Horiek guztiek behartu egiten dituzte herri botereak emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak sustatzera eta horretarako oztopoak desagerraraztera emakumeen eta gizonen berdintasuna benetakoa izan dadin. Gainera, berdintasun hori herri botereen politika eta ekintza guztietan sustatu behar dute.

Eginkizun hauek esleitu dizkio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak herri administrazioari:

- ✓ Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea genero-ikuspegia ezartzeko.
- ✓ Ekintza positiboko neurriak betearaztea.
- ✓ Gobernuaren plangintza orokorraren eremuko programazioa eta foru aldundien programazioa.
- ✓ Estatistikak egokitzea eta eguneratuta izatea, emakumeen eta gizonen desberdintasun egoera ezagutzeko, baita berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriak ezagutzeko ere.
- ✓ Emakumeek eta gizonen toki mailan duten egoerari buruzko azterketak eta ikerketak egitea.
- ✓ Emakumeen eta gizonen desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriei jabeazteko jarduerak egitea.
- ✓ Tokiko araudia emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren arabera aplikatzaren inguruko jarraipena egitea.
- ✓ Herritarrei eta bereziki emakumei informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen

¹ "Documento Marco para la Gestión de las Políticas Locales de Igualdad". Espainiako Udalerrien Probintzien Federazioa, Berdintasun Arloa, Madril, 2006

berdintasunaren gaineko baliabideei eta programei buruz eta diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak eskuratzea bermatzeko programei edo zerbitzuei buruz.

- ✓ Programak edo zerbitzuak ematea, diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak eskuratzea bermatzeko; izan ere, zerbitzuen izaera dela-eta, udalekoak izan behar dute.
- ✓ Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko gizarte zerbitzuak eta baliabideak ezartzea; izan ere, zerbitzuen izaera dela-eta, udalekoak izan behar dute.
- ✓ Erlazioak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea erakunde publikoekin eta pribatuekin; horien helburuen edo eginkizunen arabera, emakumeen eta gizonen berdintasuna toki mailan lortzeko lagungarriak izango dira.
- ✓ Toki mailan gerta daitezkeen sexuaren ziozko diskriminazioak antzematea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.
- ✓ Haien eskumenen eremuan esleitu dakiekeen beste edozein funtzio.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak frogatzen duenez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea oinarrizko aurrerapena da berdintasunerako politiketan, zeren arauetan garatzen baitu berdintasunaren printzipioa, printzipio juridiko unibertsala, bai tratutarako berdintasunerako, bai aukera-berdintasunerako, euskal administrazioaren jardueran eta, hala denean, erakunde pribatuen jardueran.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren diseinuari eta egiturari buruzko oinarrizko lau funtzio ezarri dira Legean:

- ✓ Plana burutzeko botere publikoen jarduketa eraendu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzeko funtzioa, (Legearen hasierako titulua).
- ✓ Neurri-multzo bat arautzea genero-ikuspegia EAEko herri administrazioen eta botereen jardueran txertatzeko.
- ✓ Berdintasuna esku hartzeko arloetan sustatzeko neurriak bideratzeko funtzioa (III. Titulua).
- ✓ Oinarrizko edukiak zehazteko funtzioa.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaraturiko legearen abiapuntua, alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa da: *"Giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da"*.

Bestalde, Legeak beste premisa bat ere badu oinarri gisa: berdintasun formala legearen aurrean erabat onartzea funtsezkoa izatea, araudien bidez hobetu beharrekoa, *"sexuaren ziozko zuzeneko edo zeharkako ezkutuko diskriminazio modu guztien kontra egiteko eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko, berdintasuna lortzea galarazten duten gizarte oztipoak eta estereotipoak desagerraraziz"*.

Besteak beste, funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "Ekintza positiboa", "Ordezkaritza orekatua" eta "Zeharkakotasuna".

Hauxe azaltzen da 21.1. artikuluan: *"Toki erakundeek berdintasunaren eskubidea ezarriko dute haien eskumenak erabiltzean eta, horretarako, lagundu egingo diete gainerako herri administrazioei"*. Hala, toki administrazioen euren eskumenak bete behar direla ezarri da 3/2007 Legean, oro har Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eratzikiak eta, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien kasuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztuak.

Tokiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna

Tokiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna, Europako Udalerrien eta Erregioen Kontseiluak bultzatua emakumeen eta gizonen berdintasunerako erkidego-ekintzaren 5. programaren barruan, "Europako tokiko eta erregioko gobernuentzat da, eta gutuna sinatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko jendaurreko jarrera agerraraztea eta Kartan zehazturiko konpromisoak haien lurraldean aplikatzea eskatzen die".

EUDEL (EAEko Udalerrien Elkarte) da proiektuaren bazkideetako bat, eta gero eta euskal udal gehiagok sinatu dute gutuna. Gutun horrekin bat egin duten udalek hitzartu egin dute bi urteren buruan berdintasunerako ekintza-plan bat egitea eta abiaraztea, guztiek parte hartuta eginikoa eta ebaluazio-irizpideei lotuta, baita plan hori abiarazteko nahikoa baliabide izatea ere.

Europako Gutunak hauxe aintzatesten die tokiko eta erregioko agintariei: *"Esku hartzeko mailarik onenak izatea desberdintasunen iraunkortasunari eta berragerpenei aurre egiteko eta benetako berdintasunezko gizartea bultzatzeko"*.

2.- METODOLOGIA.

Aretxabaletako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plan hau egiteko erabilitako metodologia, alde batetik, udal arlo guztietako arduradun politikoen eta teknikoen inplikazioa ekarri du, eta bestetik, herritarrak ordezkatzeko dituzten tokiko erakunde guztien partaidetza. Plana, era berean, jendaurrean jarri da eta EMAKUNDEra bidali da, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera txosten bat egin dezan.

Planaren eginkizunean Berdintasun Diagnostikoan identifikatutako behar sozialetan oinarritu da. Aukeraberdintasunaren arloko udal diagnostikoa eginda, errazagoa izan da indarguneak eta hobetu beharreko arloak ikustea. Bi alderdi horiei jarraituz, zenbait helburu zehatz ezarri dira, zenbait arlo hobetzeko ekintza zehatzak burutzeko edo indarguneak bultzatzen edo lantzen jarraitzeko.

Bestalde, Berdintasunerako Plana balioztatzeko, lan-mahaiak osatu dira, non politikariek eta teknikariek ez ezik, herritarren ordezkariak diren erakundeek ere hartu dute parte.

Hauexek izan dira mahaiaren helburuak:

- Talde eragileak diagnostikoaren emaitza nagusien berri ematea udaleko pertsonal arduradunari eta udalerriko erakundeei.
- Planerako identifikaturiko helburuei buruzko informazioa ematea.
- Identifikaturiko helburuen inguruan Udalek eta udal erakundeek batera egin beharreko ekintzak lehenestea.

Lan-mahaian, lehenik eta behin, prozesu osoan erabilitako metodologia aurkeztu da, eta bigarrenik, identifikaturiko indarguneak eta ahulguneak aurkeztu dira etorkizuneko Planaren arloen arabera, baita ezarritako helburuak ere.

Bestalde, Plan honek aintzat hartuko ditu Emakundek, Euskal Autonomia Erkidegoan gizon-emakumeen artean berdintasuna lortzeko IV. Planean ezartzen dituen arloak, eta arlo hauek kontuan hartuz, diagnostikoan jaso den informazioa kuantitatiboa nahiz kualitatiboa izan da.

Beraz, plan honen arloak ondorengo hauek izango dira: NEURRI OROKORRAK; KULTURA ETA KIROLA; HEZKUNTZA; LANA; GIZARTERATZE; OSASUNA eta HIRIGINTZA; GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA.

Erabili diren egiaztatze elementuak zenbait memoriak, ikerketak, estatistikak, udal publikazioak eta udaleko teknikari, politikari eta udal ergile sozialen iritziak izan dira. Erabilitako dokumentuen zerrenda honako hau izan da:

Diagnostikoa egiteko iturri eta dokumentuak
Aretxabaleta udaleko Plan Estrategikoa
Aretxabaletako ikastetxeen datuak: ikaslegoa, irakaslegoa eta zuzendaritza taldeak.
Aretxabaletako kale izendegia.
INEM-eko datuak enpleguari buruz..
EUSTAT-eko datuak enpleguari buruz
EGAILAN.
Aretxabaletako Agenda 21.
Web orria www.aretxabaleta.com
Aretxabaletako udal liburutegiko datuak
Arratabe udal aldizkaria
"Mujeres en el mundo rural vasco 2004" txostena
www.landagipuzkoa.org

2002-2010 Euskadiko Osasun planeko 2006ko txostena
2002ko EAEko Osasun inkesta
Kirol arloko datuak

Planaren kontrastea hainbat momentuetan egin da:

- Lehen kontrastea: Planeko talde eragilearekin (Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin eta berdintasuneko zinegotziarekin). Honen ondoren Planaren bigarren zirriborria idazten da.
- Bigarren kontrastea: udaleko teknikari eta politikariekin. Honen ondoren Planaren hirugarren zirriborria idazten da.
- Hirugarren kontrastea: eragile sozialekin kontrastatzen da eta honen ondoren planaren harrera publikoa (hiritarren ekarpenak jaso ahal izateko). Honen ondoren behin-betiko plana idazten da.

3.- AUKERATURIKO ARLOEN JUSTIFIKAZIOA ETA TOKIKO ERREALITATERA EGOKITZEA.

3.1. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Berdintasun-politikei dagokienez, datozen urteotan landuko diren lehentasunezko gaiak definitzen dira ardatz estrategikoen bitartez. Honako hauek dira: Mainstreaminga; Ahalduntzea, eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea; Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria. Ardatz hauek EAEko gizon-emakumeen artean berdintasuna lortzeko IV. Planean ezartzen direnak dira hain zuzen ere.

1) Mainstreaminga

Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialeko Batzordeak 1987. urtean proposatu zuen lehen aldiz mainstreaminga edo zeharkakotasuna. Genero-mainstreamingak edo genero-ikuspegia integratzeak honako hau dakar: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, itxaropen eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea esku-hartze publikoan. Beraz, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeko garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak.

2) Jabekuntza, eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea

Ardatz honek suposatzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta bermatzea, eta bereziki, emakumeen autonomia sustatzea eta haien egoera indartzea.

3) Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna

Ardatz honek suposatzen du bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun iraunkorra sustatzeko zenbait neurri arautzea, norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea lehentasunezko esku-hartze arloetako bat dela moentzu oro agerraraziz.

4) Emakumeen aurkako indarkeria

Lehenik eta behin, horrelako indarkeria zeri esaten zaion definitzen da zehatz-mehatz: *"sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira halaber emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan".*

Plan honen bidez emakumeen aurkako indarkeriari modu integralean eta intersektorialean egiten zaio aurre. Horrela, indarkeria horrek dituen adierazpenak lantzea proposatzen da, Berdintasunerako Legean alde aurretik identifikaturiko bi lan-ildotatik: prebentzioaren eta arretaren ildoetatik, koordinazioa bietan zeharkako ildo izanik.

3.2. ESKU HARTZEKO EREMUAK

Esku hartzeko eremu funtzionalak dira, eta horien bidez egingo da lan berdintasuna lortzeko. Hauexek dira Berdintasunerako I. Udal Plan hau zehazteko ezarritako eremuak:

1. ARLOA: UDALA
2. ARLOA: EUSKERA, KULTURA ETA KIROLA
3. ARLOA: HEZKUNTZA
4. ARLOA: LANA
5. ARLOA: GIZARTERATZEA ETA OSASUNA
6. ARLOA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

Aretxabaletako Berdintasunerako I. Planaren esku hartzeko arlo hauetan kokatuko lirateke egungo udal arloak:

PLANAREN ARLOAK	Udala	Euskera, Kultura eta Kirola	Hirigintza eta Ingurumena	Hezk.	Lana*	Gizarteratzea eta Osasuna
UDALAREN ARLOAK 						
Euskara						
Gazteria						
Gizarte Zerbitzuak						
Hirigintza						
Idazkaritza						
Kirola						
Kultura						
Ogasun saila						
Udaltzaingoa						

* Arlo honen erantzunkizuna Alkatetzarena izango da.

Halaber, garrantzikoa da gehitzea sailen erantzukizunak ez direla nahitaez esku hartzeko arlo jakin batean agortzen, zeren zenbait sailen (edo udal arloren) eskumen-eremua esku hartzeko arlo bat baino gehiagotara hedatu baitaiteke. Hala eta guztiz ere, I. Plan honen Esku Hartzeko Arloen egituraketa lagungarria da arlo bakoitzean zer egin behar den jakiteko ikuspegi osoa eta argia izateko. Hortaz, aurrerago aurkeztuko diren helburuak eta ekintzak horietako bakoitzaren diagnostikoan ikusitako beharretan oinarritzen dira.

4. PLANA EZARTZEKO NEURRIAK.

4.1.- Berdintasunerako egiturak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikuluan ezarri denez, foru eta tokiko administrazioek, beren burua antolatzeko eskumenen eremuan, egiturak egokitu behar dituzte halako moldez non horietako bakoitzean gutxienez emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko, aholkuak emateko, programatzeko eta ebaluatzeko ardura duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat egongo baita erakunde horiek duten jarduteko lurralde-eremuan.

Momentuz ez dago udal barruko koordinaziorako egiturarik, udal arlo guztietako pertsonal politikoak edota teknikoak osatua, berdintasunarekin lotutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Bultzada emateko eta koordinatzeko egiturak

Plan honetako ardatzen eta arloen ondoriozko helburuak eta ekintzak lortzeko, hainbat egitura ezarriko dira plana bultzatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko lana ahalbidetzeko. Hauexek dira egiturak:

- **Bultzada emateko egitura:** bi organok osatuta egongo da egitura:

- I. Plan honen eremuan proposamenak egiten dituen organo bat, politika mailako erabakiak hartzeko Berdintasun batzorde bat eratzea aurreikuste da.
- Arduradun politiko batek eta arduradun tekniko batek osaturiko organo betearazlea. Organikoki, Berdintasuna Gizarte Ongizate departamentuaren barruan kokatuko da eta gizarte zinegotzia eta gizarte langileak izango dira arduradunak. 2008az gero, berdintasunerako teknikari bat du udalean bertan, astean egun batetan, guztira 5 ordu, eta ordutegia handitzea aurreikusten da.

- **Udal koordinazioko egitura:** arlo arteko batzorde informatiboak erabiliko dira berdintasun arloko gauzetaz informatzeko. Alkateak urtero egindako koordinazio bileran berdintasuna deialdiaren puntu bat bezala sartuko da.

- **Udal arteko koordinazio-egitura:** BERDINSAREA (Berdintasunaren alde eta indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea) erakundekoa izateari eustea aurreikusten da.

- **Emakumeek parte hartzeko organoa:** planaren indarraldian emakumeek parte hartzeko organo bat jarriko da martxan. Plan honen indarraldian herriko emakumeak dinamizatuko dira eta beraien jabetasuna eta parte-hartze politikoa eta soziala bultzatzeko.

4.2.-Plana kudeatzeko tresnak.

Programazio, jarraipen eta ebaluaziorako tresnak

I. Plan hau programatzeko, urteko programa operatiboak egingo dira aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan. Honako hauek bilduko dituzte urteko plan operatiboak:

Arlo edo erakunde arduradun bakoitzaren laneko planak jardueraka: abiapuntuko egoera, espero diren emaitzak, egin beharreko jarduerak, inplikaturiko pertsonak eta erakundeak, egutegia, aurrekontua eta adierazleak.

Aurrekontu orokor bat programa operatibo bakoitzerako.

Berdintasun Planen jarraipena horien kudeaketaren zati garrantzitsua da. Aretxabaletako Udalak, planaren jarraipena egingo du, honako hauek bilduko dituzten bitarteko txostenen bidez: aurreikusitako lana, eginiko lana, zailtasunak, aurrerapenak... eta arlo edo erakunde arduradun bakoitzak urteko ekitaldiaren erdialde aldera egingo dituenak.

2009. urterako, 18.000 €-ko aurrekontua dago Berdintasunerako Plana burutzeko eta aurrekontua handitzeko posibilitateak daude. Plan honen indaraldiko gainerako urteetarako, aurreko urteko azken hileetan ezarriko da aurrekontua.

Jarraian, arlo bakoitzeko lan-planetan erabili beharreko ekintzak planifikatzeko fitxaren eredu bat agertzen da.

EKINTZA-FITXAREN EREDUA

ARLOA:			
HELBURUA:			
EKINTZA:			
JARDUERA:			
Jardueraren deskribapena			
Justifikazioa			
Pertsona edota erakunde hartzaileak			
BURUTZAPENAREN ARDURADUNAK			
Arlo arduradunak	Pertsona arduradunak	Arlo laguntzaileak	Pertsona laguntzaileak
Burutzapen-aldia		Aurrekontua	
		Jatorria	Kantitatea
ADIERAZLEAK:			
ESPERO DIREN EMAITZAK:			
KOMENTARIOAK:			

5. ARLOAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK.

Atal honetan, 2009-2012eko aldian egin beharreko ekintzak eta helburuak garatuko dira, Plan honen arloen arabera.

Aldatu nahi den gizarte errealitatea zehazten dute **helburuek**, eta egin beharrekoa eta zehaztu beharrekoa lehenesteko eginkizuna betetzen dute proposaturiko adierazleen eta ondoko ebaluazioen bidez, baita lorturiko emaitzen norainokoa ere. Ezarritako arlo guztietan ezarriko dira helburuak, eta arlo bakoitzean buruturiko **ekintzak** sartuko dira, EAEko Berdintasunerako IV. Planak dakartzan ekintza-taldeetan bilduak: ezagutza sortzea, jabeaztea, informazioa eta dibulgazioa, trebakuntza, baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea, arauak sortzea eta egokitzea eta horien jarraipena egiteko mekanismoak egokitzea. Abiarazi beharreko **estrategiei** dagokie planteatzen diren ekintzen deskribapena.

Bukatzeko, aipatu behar da Aretxabaletako I. Berdintasunerako Plana ondorengo helburu eta ekintzak biltzen dituela:

ARLOAK	HELBURUAK	EKINTZAK
1. ARLOA: NEURRI OROKORRAK	5	16
2. ARLOA: EUSKERA, KULTURA ETA KIROLA	6	31
3. ARLOA: HEZKUNTZA	7	18
4. ARLOA: LANA	5	16
5. ARLOA: GIZARTERATZEA ETA OSASUNA	5	36
6. ARLOA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA	5	17
GUZTIRA	33	134

ARETXABALETAKO I. BERDINTASUNERAKO PLANEKO ARLOAK, ARDATZAK ETA HELBURUAK

	1. ARDATZA: MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: JABEKUNTZA, ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
1. ARLOA : UDALA/NEURRI OROKORRAK	<p>AM 1.1. Helburua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Aretxabaetako I. Plana zabaltzea.</p> <p>AM 1.2. Helburua: Udalak arloetan genero ikuspegia instituzionalizatzea.</p>	<p>AJ 1.1. Helburua: Aretxabaletako emakumeak eta gizonak genero-berdintasunaz jabeaztea.</p>	<p>AB 1.1 Helburua: Udaletxeko gizon langileen artean erantzukidetasuna bultzatzea.</p>	<p>AE 1.1. Helburua: Sexu-jazarpena prebenitzea lanean.</p>

	1. ARDATZA: MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: JABEKUNTZA, ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
<p>2. ARLOA: EUSKERA, KULTURA ETA KIROLA</p>	<p>AM 2.1. Helburua: Kultur eta kirol plangintza egitea genero ikuspegitik.</p>	<p>AJ 2.1. Helburua: Kirolaren eskaintza eta praktika dibertsifikatzea eta emakumeei tradizionalki gizonezkoen kirolak egiteko eta gizonei tradizionalki emakumezkoen kirolak egiteko posibilitateak ematea.</p> <p>AJ 2.2. Helburua: Kirola egiten duten emakumeen portzentaia eta haien interesen araberako kirola aukeratzeko posibilitateak handitzea.</p> <p>AJ 2.3. Helburua: Emakumeek eginiko kultur eta arte sorpena eta gizartearen irudikapen ez sexista bat bultzatzen duen kultura areagotu.</p>	<p>AB 2.1 Helburua: Erantzunkidetasuna sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea.</p>	<p>AE 2.1. Helburua: Genero indarkeriaren kontrako baloreak transmititzen dituen gune soziokulturalak gehitu.</p>

	1. ARDATZA: MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: JABEKUNTZA, ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
3. ARLOA: HEZKUNTZA	<p>AM 3.1. Helburua: Ikastetxeak jabeaztea hezkidetzan haien programetan ezartzeko Berritzegunaren bidez eta ezarpen hori sustatzea.</p>	<p>AJ 3.1. Helburua: Emakumeek lanbide heziketako zikloetan duten partaidetza handitzea, bereziki tradizioz gizonaenak diren zikloetan.</p>	<p>AB 3.1 Helburua: Erantzukidetasuna handitzea etxeko lanean eta neska-mutilak zaintzeko lanean.</p> <p>AB 3.2. Helburua: Herriko ikastetxeen egutegi eta ordutegien malgutasuna haunditu familien beharrei egokitzeko</p>	<p>AE 3.1. Helburua: Ikastetxeetan etxeko indarkeria-kasu guztiak atzematea, eta adostutako protokolo eraginkorrari jarraiki, kasu guztiei erantzuna ematea</p> <p>AE 3.2. Helburua: Indarkeriaren prebentziorako programak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzan eta lankidetzan lortzeko harremanen kultura aldatuta.</p>

	1. ARDATZA: MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: JABEKUNTZA, ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
4. ARLOA :LANA	<p>AM 4.1. Helburua: Udalerriko emakumeek lanean aritzeko aukerak eta lanaren kalitatea hobetzea.</p>	<p>AJ 4.1. Helburua: Emakumeen eta gizonen desberdintasuna txikitzea kopuruaren aldetik tradiziozko industri sektoreetako lan teknikoetan, emakumeen partaidetza handituz.</p>	<p>AB 4.1 Helburua: Etxeko eta zaintza lanetan ematen den denboran emakume eta gizonen artean dagoen desberdintasuna gutxitzea.</p> <p>AB 4.2 Helburua: Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea ahalbidetzeko baldintzak sortzea.</p>	<p>AE 4.1. Helburua: Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan.</p>

	1. ARDATZA: MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: JABEKUNTZA, ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: EMAKUMEN AURKAKO INDARKERIA
5. ARLOA: GIZARTERATZEA ETA OSASUNA	<p>AM 5.1. Helburua: Gizarte zerbitzuen plangintza egitea genero ikuspegitik.</p> <p>AM 5.2. Helburua: Udalerrian baztertuak izateko arriskua duten emakumeen egoera eta kokaera hobetzea.</p> <p>AM 5.2. Helburua: Udalerriko ginekologia zerbitzua hobetzea.</p> <p>AM 5.3. Helburua: Herritarrak osasun orokorraz jabetaraztea, nesken, nerabeen eta emakume helduen osasuna sustatuz.</p>	--	--	<p>AE 5.1. Helburua: Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak laguntzeko eta babesteko eskariei koordinazio, kalitate eta eraginkortasun irizpideekin erantzutea, tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko EAEko udalerrietako tokiko protokoloak ezarrita.</p>

	1. ARDATZA: MAINSTREAMINGA	2. ARDATZA: JABEKUNTZA, ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA	3. ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
6. ARLOA :HIRIGINTZA ETA INGURUMENA	AM 6.1. Helburua: Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra ezartzea.	AJ 6.1. Helburua: Landa-eremuko emakumeen eta gizonen beharrak ezagutzea. AJ 6.2. Helburua: Emakumeek eta gizonek eginiko ekarpenen gizarte mailako onarpena orekatzea onarpen hori hiriko elementuen bidez egiten denean (kalea, plaza, monumentu izenak, etab.).	AB 6.1 Helburua: Herria planifikatzeko eta diseinatzeko irizpideak identifikatzea eta aplikatzea, bizi pertsonala, familia eta lana bateratzea errazteko.	AE 6.1. Helburua: Emakumeak seguru sentitzen ez diren udalerriko tokiak identifikatzea, toki horiek desagerrarazteko neurriak abiarazteko. Emakumeak seguru sentitzen ez diren toki gehiago ez agertzeko irizpideak ezartzea.

1. ARLOA: UDALA ETA NEURRI OROKORRAK

Behar sozialak

Udala eta neurri orokorroei dagokionez, Aretxabaletako Emakume eta Gizonen berdintasunerako Daignostikoan hurrengo indargune eta hobetu beharreko arloak atera dira:

INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKO ARLOAK
Gizarte Zerbitzuetatik herriko emakume talde bat sortzeko ahaleginak egin dira urteetan zehar.	Ezer gutxi dakite genero-ikuspegia arloetan ezartzeko moduari buruz.
Oro ar, arlo gehienek adierazten dute berdintasun planak eraginkorrak direla.	Ezagutza maila baxua dago udal arloetan Berdintasunerako planei buruz.
Emakumeek parte hartu dute Euskera eta Hirigintza Arloek buruturiko zenbait jarduketa planifikatzen.	Gutxi gorabehera bai baina zehaztasun txikirekin ezagutzen ditu pertsonalak aukera-berdintasunaren oinarritzko kontzeptuak.
Zenbait arlok ahalegin handiak egiten dituzte hizkera eta irudi ez sexistak erabiltzeko.	Jarduketa edo arau bat diseinatu baino lehen ez dago emakumeen beharrei buruzko diagnostikorik, eta ekintzak ez dira sistematikoki aldatzen edo kentzen, jarduketetan edo baldintzetan eragin txarra duten ekintzak baldin badira ere.
Arlo batzuetan planteatu dira ekintza positiboak emakumeen parte hartzea sustatzeko.	Udal arlorik gehienetan ez da ebaluatzen jarduketa edo arau batek emakumeen egoeran eta baldintzetan duen eragina.
Berdintasun plana bultzatzeko laguntza teknikoaren existentzia.	Jasotzen diren datu gehienek ez dira sexu arabera jasotzen, ez badira hauek Eusko Jaurlaritzako edota Foru Aldundiko aplikatibo baten sartu behar.

Helburu, ekintza, ardurak, epeak eta ebaluaketa adierazleak

AM 1.1. HELBURUA: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Aretxabaletako I. Plana zabaltzea.

EKINTZAK

AM 1.1.1. Planaren edukia argitaratu eta herriko gizarte eragile guztien eta herritarren artean zabaltzea honako baliabide hauen bitartez: udalaren web orria, udal aldizkariak...

AM 1.1.2. Plana udal langile guztiei banatzea eta bakoitzari bereziki bere lan arloarekin zerikusia duena nabarmentzea.

ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK

Alkatetza, berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak

EPEA

2009

ADIERAZLEAK

- Abiarazitako jarduketan kopurua eta mota.

- Pertsonal teknikoak eta politikoak udal politikan genero-ikuspegia txertatzeko eginiko konpromiso edota jarduketan kopurua eta mota.

AM 1.2. HELBURUA: Udal arloetan genero ikuspegia instituzionalizatzea.

EKINTZAK

AM 1.2.1. Pertsonal tekniko eta politikoari berdintasun politiketan trebakuntza eman, oinarrizko eta espezializatua.

AM 1.2.2. Emakume eta Gizonen berdintasunerako udal ordenantza bat eratzea.

AM 1.2.3. Udalaren hizkera eta irudiaren erabileraren gaineko gomendioei buruzko Alkatetza Dekretu bat onestea Udalaren Antolamenduari buruzko Arautegian sartzeko.

AM 1.2.4. Udalaren pertsonalarentzako berdintasunezko hizkeraren eta irudien erabilerari buruzko Gomendioen Eskuliburua egitea eta argitaratzea.

AM 1.2.5. Udaleko langileek tresnak eta laguntza teknikoa ematea Udalak sortzen dituen administrazio dokumentuetako (memoriak, aktak, txostenak, etab.), argitalpenetako eta kanpainetako irudien eta hizkeraren erabilera berrikusteko eta, hala denean, egokitzeko genero-ikuspegitik.

AM 1.2.6. Azpikontraturiko obraren edo zerbitzuaren ondoriozko dokumentu idatzi eta ikonografiko guztietako hizkeraren eta irudien berdintasunezko tratua egiteko konpromisoa baldintza teknikoen eta administratiboen orrietan ezarrita duten enpresen kontratazioa lehenestea.

AM 1.2.7. Eusko Jaurlaritzak gomendioen arabera, Udalaren Arau eta ekintza administratiboen genero gaineko eraginaren ebaluaketa egitea.

AM 1.2.8. Sexuz bereizitako datuak bildu, aztertu eta interpretatu zerbitzu eta ekintzen plangintza, erapilpen eta sarbidean.

AM 1.2.9. Programa informatikoen datuak sexuaren arabera bereizten ez dituzten arloetan, hori nola egin daitekeen aztertzea.

AM 1.2.10. Datuak sexuaren arabera bereizita daudenean datuak bildu eta gero aztertzea, genero berdintasunean zer hobe daitekeen ikusteko.

AM 1.2.11. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua edota emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloko barne-kudeaketarako konpromisoa duten enpresen kontratazioa lehenestea.

ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK

Alkatetza, berdintasuna, informatika, Erosketak eta azpikontratazioa, arlo guztiak

EPEA

2009, 2010, 2011, 2012.

ADIERAZLEAK

- Emakume eta gizonen presentzia orekatua edota emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloko barne-kudeaketarako konpromezuaren balorazioa jasotzen duten kontratazio agirien kopurua.
- Pertsona kokretuek (politikari eta teknikariek) bere gain hartutako eta koordinatutako Planeko ekintza kopurua.
- Kargu politiko eta udal langileriarekin urteko programak ezartzeko egindako bilera kopurua.
- Udaleko Arlo bakoitzean ekintza hauek betetzeko egindako Lan Plangintzen kopurua. Pertsonal

teknikoaren eta politikoaren inplikazio-maila.

- Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dituzten agiri estatistikoaren kopurua.
- Sexuaren arabera banatutako datuen azterketa jasotzen duten agiri estatistikoaren kopurua.
- Genero-ikuspegia txertatu den zerbitzuak.
- Udal Zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzeko egindako eta ezarritako harraminta kopuru eta mota.
- Genero-eraginari buruz eginiko ebaluazioen kopurua.

AJ 1.1 HELBURUA: Aretxabaletako emakumeak eta gizonak genero-berdintasunaz jabearaztea

EKINTZAK

AJ. 1.1.1. Emakumeentzat funtsezkoak diren egunak ospatzeaz jabearazteko jarduerak antolatzea hala nola martxoak 8 (Emakumearen Nazioarteko Eguna), azaroak 25 (Emakumearen kontrako Indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna), etab.

ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK

Alkatetza, kultura, berdintasuna

EPEA

2009, 2010, 2011, 2012.

ADIERAZLEAK

- Martxoaren 8rako antolatutako ekintza kopurua eta mota.
- Azaroaren 25erako antolatutako ekintza kopurua eta mota.

AB 1.1. HELBURUA: Udaletxeko gizon langileen artean erantzukidetasuna bultzatzea.

EKINTZAK

AB 1.1.1. Udaleko langileak jabearazteko barne-kanpaina bat egitea, besteen laguntza behar duten eta laguntza hori behar ez duten pertsonak zaintzeko baterako erantzukizuna sustatzeko.

ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK

Alkatetza, berdintasuna

EPEA

2011

ADIERAZLEAK

- Bateragarritasun neurriak hartzen dituzten udaletxeko gizon langileen kopurua.

AE 1.1. HELBURUA: Sexu-jazarpena prebenitzea lanean.

EKINTZAK

AE 1.1.1. Prebentziorako eta jarduteko protokoloak ezartzea laneko sexu-jazarpenaren aurrean, Udalhitz Hitzarmenaren eremuan.

ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK

Alkatetza, lengileen ordezkaria, berdintasuna.

EPEA

ADIERAZLEAK

- Protokoloa inplementatuta.

2.ARLOA: EUSKERA, KULTURA ETA KIROLA**Behar sozialak**

Euskera, Kultura eta kirol arloari dagokionez, Aretxabaletako Emakume eta Gizonen berdintasunerako Daigostikoan hurrengo indargune eta hobetu beharreko arloak atera dira:

INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKO ARLOAK
Kultura Arloa, nahiko kultur eskaintza zabala du eta harretarako ordutegi zabal bat dago.	Udalerrian antolaturiko kultur eta kirol jardueri buruzko datuak sexuaren arabera banatuta badira ere, horien erabilera ez da orokorra.
Herritarrek kultur ekintzetan duten partaidetza nahiko handia da.	Tokiko hedabideek ez dute zaintzen hizkera eta irudi sexistarik erabilpena eta udalerriko emakumeak ikusarazi behar dituzte.
Kultur eta kirol jarduerak planifikatzerakoan, askotariko ordutegiak izan nahi dira bateratzea errazteko.	Neskek kirolean duten partaidetza bultzatu beharra nabarmentzen da kirolari uztea ekiditeko.
Kultur eta kirol arloetan zaintzen da herritarrei zuzendutako publizitate eta karteletan erabiltzen diren irudi eta testuak izan ez daitezen estereotipatuak.	Kirol aniztasuna lantzea proposatzen da bereizketarik gerta ez dadin, emakumeentzat zein gizonentzat kirol jarduerak sustatzeko haien partaidetza txikia den modalitate orotan.
	Udalerriko adin desberdineko emakumeen parte-hartzea sustatu behar dela ikusten da.

Helburu, ekintza, ardurak, epeak eta ebaluaketa adierazleak**AM 2.1. Kultur eta kirol plangintza egitea genero ikuspegitik.****EKINTZAK:**

AM 2.1.1. Kultur eta kirol ataleko arduradun eta teknikariek inbentarioa egin generoaren arloan gaitzeko.

AM 2.1.2. Laguntza tekniko eta ekonomiko ematea bere lan eta egituretan genero ikuspegia txertatzeko prozesuan dauden kultur eta kirol elkarteei.

AM 2.1.3. Gida liburu bat egitea azalduz.

ARLO EDOTA ERAKUNDE ARDURADUNAK

Kirola, Euskera, kultura, berdintasuna

EPEA

2009, 2010, 2011, 2012

ADIERAZLEAK

- Jarduketan kopurua eta mota.
- Jabeazte-maila.
- Kultur eta kirol ekintzen plangintzan genero ikuspegia nola sartzearen Gida Liburua.

